



193 EREDUAREN AURKEZPENERAKO DISEINU LOGIKOAK

ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitortpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. mota: Egindako ordainketen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera egingo da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortpenean jasotako ordainketak adina erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldeetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-I kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldeetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta enpaketatu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango direlarik.

Taldekako aurkezpena egiten bada (aitortzaile bat baino gehiago artxibo berean) fitxategiaren lehen erregistro bezala zero motako erregistro bat aurkeztuko da, apartatu honetan bertan erregistro mota horretarako deskribatzen dugun diseinuari jarraituz. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori fitxategian aitortzaile bezala ere azaldu arren. Ondoren, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta bere jasotzaileak gero (2. mota); jarraian, hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.



193 EREDUA

A. 0 MOTAKO ERREGISTROA

PERTSONA EDO ENTITATE AURKEZLEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «0» konstantea (zero).
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «193» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Fitxategian sartu diren aitortpenen zerga ekitaldiko lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN IFZ Aurkezlearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
18-57	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA 1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da.
58-109	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN HELBIDEA Eremu hau bederatzitan banatzen da. 58-59: SG: Bide publikoaren siglak. 60-79: BIDE PUBLIKOA : Bide publikoaren izena. Alfabetiko izan behar du eta, beraz, izenak zenbakiak dituenean hizkiekin adieraziko da (adibidez: maiatzaren 1a, "maiatzaren lehena" idatziko da). Errepidea denean, km laburdura jarriko da bukaeran. 80-84: ZENBAKIA: Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (hamartarrik gabe). Numerikoa izan behar du eta bost posizioak.

85-86: ESKAILERA

87-88: OINA

89-90: ATEA

91-95: POSTA KODEA: Aurkezlearen zerga helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du eta bost posiziokoa.

96-107: UDALERRIA: Hamabi posizio hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira artikulua eta preposizioak gabe.

108-109: PROBINTZIA KODEA: Egindako ordainketen erregistroan (2. motan) probintzia kodea eremurako adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da.

Aitorpen honetan jarritako helbideak izaera informatiboa izango du bakarrik, eta inoiz ez da aitorpen espresuztat hartuko Zergen Foru Arau Orokorrek 48.4 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

110-114 **Numerikoa**

AITORTZAILEAK GUZTIRA

Bost posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat pertsona edo entitate aitortzaile sartu diren adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua).

115-123 **Numerikoa**

JASOTZAILEAK GUZTIRA

Bederatzi posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian zerrendatu diren jasotzaile kopuru osoa adieraziko da.

124

ZURIUNEA

125-173 **Alfanumerikoa**

HARREMANETARAKO PERTSONA

Eremu hau bitan banatzen da:

125-133: TELEFONOA: Bederatzi posizioko eremu numerikoa.

134-173: DEITURAK ETA IZENA: 1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da.

174-500

ZURIUNEAK

- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerretik zeroz bete behar dira.
- * Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



193 EREDUA

B. 1 MOTAKO ERREGISTROA

AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «1» konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «193» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ Atxikitzailearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Pertsona juridikoak eta errentak egozten dituzten entitateak direnean, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri.
58		ZURIUNEA
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67: TELEFONOA: Bederatzi posizioko eremu numerikoa.

68-107: DEITURAK ETA IZENA: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

108-120

ZURIUNEAK

121-122

Alfabetikoa

AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA

Aurkezten dena bigarren aitorten bat edo ordezeko aitorten bat denean honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:

121: AITORPEN OSAGARRIA

«C» bat jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorten batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada.

122: ORDEZKO AITORPENA

«S» bat jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorten bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzeko bada. Ordezko aitortenak aurreko aitorten bat bakarrik ordezkatu dezake.

123-135

ZURIUNEAK

136-144

Numerikoa

JASOTZAILE KOPURUA GUZTIRA

Aitortzaile honentzat fitxategian zenbat jasotzaile aitortu diren jarriko da. Jasotzaile bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, ageri den adina aldiz konputatuko da (2. motako erregistroen kopurua).

145-159

Numerikoa

ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

15 posizioeko eremu numerikoa.

«Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarria» eremuan (jasotzailearen erregistroetako 152tik 164ra arteko posizioetan) adierazi diren zenbatekoen batura jarriko da zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Eremu hau beste bi eremutan banatzen da:

145-157: Osoa: Numerikoa. Zati osoa: atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriari dagokion zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

158-159: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra: atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriari dagokion zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

160-174

Numerikoa

ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

15 posizioeko eremu numerikoa.

«Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuetan (jasotzailearen erregistroetako 169tik 181era arteko posizioetan) adierazi diren zenbatekoen batura jarriko da zeinu eta koma hamartarrik gabe.

Eremu hau beste bi eremutan banatzen da:

160-172: Osoa: Numerikoa. Zati osoa: atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

173-174: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra: atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

175-189

Numerikoa

ORDAINDUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

15 posizioeko eremu numerikoa.

Jarri zeinurik eta koma hamartarrik gabe, «Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuetan (jasotzailearen erregistroetako 169tik 181era arteko posizioetan) adierazi diren zenbatekoen batura, baldin eta jasotzaileen erregistro horiek betetzean «Ordainketa gakoa» eremuan «C» letra jarri bada eta, halaber, «Ordainketa gakoa» eremuan «A», «B» edo «D» letrak eta, aldi berean, «Ordainketa» eremuan «1» edo «3» balorea adierazi badira.

Eremu hau bitan banatzen da:

175-187: Osoa: Numerikoa. Zati osoa: ordaindu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

188-189: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra: ordaindu diren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

190-500

ZURIUNEAK

- * Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zurienez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



193 EREDUA

2. MOTAKO ERREGISTROA

JASOTZAILEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «2» konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «193» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	JASOTZAILEAREN IFZ Pertsona fisikoa bada jasotzailearen IFZ jarriko da. Jasotzailea pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitate bat denean (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia, etab.), dagokion IFZ jarriko da. Adingabeak edo desgaituak identifikatzeko, adingabearen edo desgaituaren datuak jarri behar dira, bere identifikazio fiskaleko zenbakia barne, baita bere legezko ordezkariarenak ere. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Jasotzailea adingabea edo desgaitua bada, bere legezko ordezkariaren IFZ (aita, ama edo tutorearena) jarri behar da eremu honetan. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia hutsuneekin beteko da.

36-75

Alfanumerikoa

JASOTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA

a) Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Jasotzailea adingabea edo desgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo desgaituaren deiturak eta izena jarriko dira.

b) Jasotzaileak pertsona juridikoak edo errentak esleitzen dituzten entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

76

Alfabetikoa

BITARTEKARIARI ORDAINKETA

«A», «B» eta «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Eremu honetan «X» bat jarriko da baldin eta aitortutako jasotzailea Espainian helbideratuta dagoen, bertan egoitza duen edo han ordezkaturatuta dagoen entitate bat bada, atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen dituen edo dagokion etekina edo errenta sortzen duten baloreen errenten kobrantza gordailatu edo kudeatzen duena. Aipatu ez diren gainerako kasuetan eremu hau bete gabe utziko da, hau da, aitortutako jasotzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez egoiliarren errenta zergaren zergaduna denean eta zerga horiengatik eredu honetan aitortzen diren atxikipenak edo konturako sarrerak jasan dituen.

77-78

Numerikoa

PROBINTZIA KODEA

Izaera orokorrean, jasotzailea bizi den probintziako edo, hala bada, hiri autonomoko bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:

ARABA	1	LEON	24
ALBACETE	2	LLEIDA	25
ALACANT	3	LUGO	27
ALMERIA	4	MADRIL	28
ASTURIAS	33	MALAGA	29
ÁVILA	5	MELILLA	52
BADAJOS	6	MURTZIA	30
BARTZELONA	8	NAFARROA	31
BURGOS	9	OURENSE	32
CACERES	10	PALENTZIA	34
CADIZ	11	PALMAS, LAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26

CEUTA	51
CIUDAD REAL	13
KORDOBA	14
CORUÑA, A	15
CUENCA	16
GIRONA	17
GRANADA	18
GUADALAJARA	19
GIPUZKOA	20
HUELVA	21
HUESCA	22
BALEARRAK	7
JAEN	23

79

Numerikoa

SALAMANCA	37
S.C.TENERIFE	38
SEGOVIA	40
SEVILLA	41
SORIA	42
TARRAGONA	43
TERUEL	44
TOLEDO	45
VALENTZIA	46
VALLADOLID	47
BIZKAIA	48
ZAMORA	49
ZARAGOZA	50

KODEAREN GAKOA

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Eremu honetan jarraian zerrendatzen diren zenbakietako bat jarriko da «Jaulkitzailearen kodea» eremuaren edukia identifikatzeko:

1. Jaulkitzailearen kodea IFZ bati dagokio. Oro har jarri behar da.
2. Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio.
3. Jaulkitzailearen kodea ISIN koderik ez duten atzerriko baloreei dagokie.

80-91

Alfanumerikoa

Jaulkitzailearen kodea

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Jaulkitzailea identifikatzeko beteko da eremu hau.

«Kodearen gako» eremuan 1 jarri bada, jaulkitzailearen IFZ adieraziko da.

«Kode gako» eremuan 2 jarri bada, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak uztailaren 28an emandako 2/2010 Zirkularrari jarraiki eratutako ISIN kodea adieraziko da.

«Kode gako» eremuan 3 jarri bada, «ZXX» gako adierazi behar da. «XX» hori herrialde jaulkitzailearen kodea izango da, 2016ko abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduak, «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren. Ez-egoiliarren kontuen aitopen informatiboa» izeneko 291 eredia onartu, eta harren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurralde kodeen zerrenda ezartzen dituenak, III. eranskinean herrialdeetarako ezarrita dagoen kodeketaren arabera.

92

Alfabetikoa

ORDAINKETA GAKOA

Jarri dagokion gako alfabetikoa atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak edo kapital higigarriaren etekinak nondik datozen kontuan izanik.

A) Edozein entitatetako funts propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak edo errentak.

B) Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak edo errentak, «D» gakoan adierazitakoak ez direnean.

C) «A», «B» eta «D» gakoetan sartu gabeko beste errentak edo kapital higigarriaren etekinak.

D) Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak edo errentak, entitate lotuetatik datozenak, jasotzailea PFEZren zergaduna denean.

«D» gakoa erabiltzen denean, PFEZren araudiak dioena hartu behar da kontuan ordainketak «B» eta «D» gakoaren artean banatzeko. Horrela, jasotzaileak kapital propioak laga baditu lotutako entitate mailegu-hartzailearen funts propioetan duen partaidetza bider hiru eginez ateratzen dena baino zenbateko handiagoan, jasotako zenbatekoaren aitortpena ondoren zehazten den eran banatu behar da (PFEZaren Erregelamenduko 55. artikulua):

— 3/2014 Foru Arauaren 35. artikuluan aurreikusita dauden kapital higigarriaren etekinak «B» gakoarekin aitortuko dira, lagatako kapitaletan haiei dagokien zatia zergadunak entitatearen funts propioetan duen partaidetza bider hiru eginez ateratzen dena baino handiagoa ez bada.

— 3/2014 Foru Arauaren 35. artikuluan aurreikusita dauden kapital higigarriaren etekinak «D» gakoarekin aitortuko dira, lagatako kapitaletan haiei dagokien zatia zergadunak entitatearen funts propioetan duen partaidetza bider hiru eginez ateratzen dena baino handiagoa bada.

93-94

Numerikoa

IZAERA

Dena delako zenbakia jarri behar da, «Ordainketa gakoa» eremuan adierazitako gako alfabetikoaren arabera.

«A» ordainketa gakoari dagokion izaera:

01. Batzarretara joateko primak.

02. Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak edozein motatako entitateetan, «07» izaera edo «08» izaera bidezkoak ez direnean.

03. Edozein aktibo motatetik datozen etekinak edo errentak, akzio liberatuak ematea izan ezik, estatutuek finkatutakoaren arabera edo sozietateko organoek erabakita ahalmena ematen badute entitate baten irabazietan, salmentetan, eragiketetan, dirusarreretan edo antzeko kontzeptuetan partaidetza izateko, lan pertsonalaren ordainsariekin zer ikusia izan gabe.

04. Entitatearen funts propioetako partaidetza errepresentatzen duten balore edo partaidetzen gainean erabilpen edo gozamenerako eskubideak eratzetik edo lagatzen eratoritzen diren etekinak edo errentak, hauen deitura edo izaera edozein dela ere.

05. Aurreko dijituetan aipatu ez den beste edozein onura, entitate baten bazkide, akziodun, elkartu edo partaide izatetik eratorritakoa denean.

06. Etekin salbuetsiak.

07. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkinak.

08. Atxikipenari edo konturako sarrerei lotuta ez dauden dibidenduak.

09. Ekarpengatik, kooperatibek beren bazkideei ordaindutako interesak.

«B» eta «D» ordainketa gakoari dagokion izaera:

01. Obligazio, bono, gordailu-ziurtagiri edo bestelako titulu pribatuen interesak.

02. Obligazio, bonu, zedula, zor publiko edo bestelako titulu publikoen interesak.

03. Bankarioak ez diren maileguen intererak.

04. Eragiketa finantzarioen irabazietan Sozietateen gaineko Zergaren urtarriaren 17ko 2/2014 Foru Arauak zazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen duen araubide iragankorraz gozatzen duen etekinak edo errentak.

05. Entitate finantzario batek bere titularitateko kreditu bat osorik edo zati batean eskualdatu, lagatu edo transferitzeagatik ordaindutako etekinak edo errentak.

06. Aurreko dijituetan sartu ez diren beste errentak edo kapital higigarriaren etekinak.

07. Etekin salbuetsiak.

«C» gakoari dagokion izaera:

01. Jabetza intelektualetik datozen etekinak edo errentak, 15 azpigakoan aurreikusitakoak ez bezalakoak, jasotzailea egilea ez denean.
02. Jabetza industrialetik datozen etekin edo errentak, jasotzaileak egiten dituen jarduera ekonomikoei atxikita ez dagoenean.
03. Laguntza teknikoa emaketik datozen etekin edo errentak, prestazio hori jarduera ekonomiko baten baitan ematen denean izan ezik.
04. Ondasun higiezin, negozio edo meategiak errentan edo azpierrean emaketik datozen etekin edo errentak, jarduera ekonomikorik osatzen ez dutenean.
05. Kapitalen ezarpenagatik lortzen diren biziarteko edo aldi baterako errentak, betiere herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez badira eta kapitalizazio eragiketetatik edo biziarteko edo baliaezintasun aseguruaren kontratuetatik ez badatoz.
06. Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzen edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen etekinak, lagapen hori jarduera ekonomiko baten baitan egiten denean izan ezik, baldin eta jasotzaileak (erregistroak) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak badira.
07. Hiri ondasun higiezinak errentan emaketik datozen etekinak, jarduera ekonomikorik osatzen ez dutenean, baldin eta jasotzaileak (erregistroak) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak badira.
08. Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzen edo irudia erabiltzeko onarpenetik datozen etekinak, baita ustiapen ekonomikoetatik datozen sarrerak direnean ere, baldin eta jasotzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren zergaren zergadunak badira.
09. Joko, sariketa, zozketa edo konbinazio aleatorioetan parte hartzeagatik jasotako sarien etekinak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon ala ez, baldin eta horien jasotzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren zergaren zergadunak badira.

10. Beste sozietate batzuetan administratzaile edo kontseilari kargua betetzeagatik lortutako kontraprestazioak, baldin eta haien jasotzaileak (erregistroak) sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren zergaren zergadun badira. Jasotzaileak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun badira, errenta horiek 190 erduan aitortu beharko dira.

11. Etekin salbuetsiak.

12. Kapital higigarriaren beste etekin edo errenta batzuk, gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeenak, zerga oinarri orokorrean integratu beharrekoak.

13. Kapital higigarriaren beste etekin edo errenta batzuk, gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeenak, aurrezpenaren zerga oinarrian integratu behar direnean.

14. Kapital higigarriaren beste etekin edo errenta batzuk, gako honetako aurreko digituetan sartu ezin daitezkeenak, jasotzailea persona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun ez denean.

15. Egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik datozen konturako aurrerakinak, kapital higigarriaren etekintzat hartzen direnean eta hainbat urtetan zehar sortzekoak direnean.

95

ORDAINKETA

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Jarraian zerrendatzen diren zenbakietako edozein jarri behar da, pertsona edo entitate aitortzaileak egin duen ordainketa kontzeptu hauetako batengatik egin duen adierazteko:

1. Jaulkitzaile gisa.
2. Balore nazionalen bitartekari gisa.
3. Atzerriko baloreen bitartekari gisa.
4. Atzerriko baloreen bitartekari ez-atxikitzaile gisa.
5. Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako beste etekin edo errenta batzuen bitartekari gisa (ordainketa gakoa: «B». Izaera: «6»).

96

KODE MOTA

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Eremu honetan jarraian zerrendatzen diren letretako edozein jarriko da «Balore kontuaren kodea / Mailegu eragiketaren zenbakia» eremuaren edukia identifikatzeko.

«C»: Balore Kontuaren Kodearekin identifikatzen da (BKK).

«O»: Beste identifikazio bat.

«P»: Zenbait zerga neurri onartzen duen apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak bigarren xedapen gehigarrian araututako baloreen mailegua.

97-116

BALORE KONTUAREN KODEA / MAILEGU ERAGIKETAREN ZENBAKIA

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Datu hau bete behar da, baldin eta eredu honetan aitortzen diren kapital higigarriaren errentak edo etekinak ematen dituzten baloreak entitate finantzario batek kobratu, administratu eta gordailatzen baditu. Beraz, aitortzailea ez bada kapital higigarriaren errentak edo etekinak ematen dituzten baloreak kobratu, administratu eta gordailatzen dituen entitate finantzario bat, inola ere eremu hau ez da beteko. Egitura hau du eremu honek:

Entitatearen kodea: Lau digito.

Sukurtsalaren kodea: Lau digito.

Kontrol dijituak: Bi digito.

Kontu zenbakia: Hamar digito.

«Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioa) «P» jarri bada, mailegu eragiketaren zenbakia jarriko da eremu honetan.

117

KOBRATU GABE

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Eremu honetan «X» bat jarriko da ekitaldian sortu diren errentak aitortzaileak ekitaldi horretan ordaindu ez dituenentz titularrak ez direlako kobratzera agertu. Eremu honetan «X» jartzen den guztietan, jasotzaile (erregistro) bereko gainerako eremuak honela beteko dira:

Jasotzailearen IFZ: 999 999 999.

Ordez kariaren IFZ: 999 999 999.

Deiturak eta izena, sozietatearen izena: Ordaindu gabeko baloreak.

Biter kariari ordainketa: Edukirik gabe.

Probintzia (kodea): Edukirik gabe.

Kodearen gakoa: Dagokiona.

Jaulkitzailearen kodea: Dagokiona.
Ordaink. gako: Dagokiona.
Izaera: Dagokiona.
Ordainketa: Dagokiona.
Kode mota: Edukirik gabe.
Balore kontuaren kodea / Mailegu eragiketaren zenbakia:
Edukirik gabe.
Sortzapen ekitaldia: Edukirik gabe.
Ordaink. mota: Dagokiona.
Jasotako zenbatekoa / Mailegu-emaileari ordaindutakoa:
Dagokiona.
Zenbateko ez-integragarria: Dagokiona.
Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarria: Dagokiona.
Atxikipen %: Dagokiona.
Atxikipenak eta konturako sarrerak: Dagozkionak.
Maileguaren hasiera data: Dagokiona.
Maileguaren amaiera data: Dagokiona.
Konpentsazioak: Dagokiona.
Bermeak: Dagokiona.

Jasotzaileari buruzko datuen informazioa ordaindu gabeko etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiaren aitortpenean aurkeztuko da. Horrelakoetan, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiaren aitortpena egitean, «Sortzapen ekitaldia» eremuan etekin edo errenta horiek sortu diren ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira, titularrak kobratzera ez agertzeagatik ordaindu ez diren ekitaldiarenak hain zuzen.

118-121

SORTZAPEN EKITALDIA

«A», «B» edo «D» ordainketa gakoetarako soilik.

Aurreko ekitaldietan sortu eta, titularrak kobratzera agertzeagatik, aitortzen den ekitaldian ordaindu diren etekin edo errenten sortzapen ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. Beste edozein kasutan eremu hau bete gabe utziko da.

122

ORDAINKETA MOTA

Jarri dagokion ordainketa mota ondoko gako hauen arabera:

«1»: Diruzkoa.

«2»: Gauzazkoa.

123-135

JASOTAKO ZENBATEKOA / MAILEGU EMAILEAREN ALDEKO ORDAINSARIA

13 posizioko eremu numerikoa.

Diruzko ordainsarien kasuan, zeinurik eta koma hamartarrik gabe jaso behar da jasotzaile bakoitzari exijigarria zaion edo ordaindu zaion kontraprestazioaren zenbatekoa.

Gauza bidezko ordainsarien kasuan, aldiz, zeinurik eta koma hamartarrik gabe jaso behar da gauza bidezko ordainsariaren balorazioa. jasotzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun bat bada, balorazio hori merkatuko balioa izango da, gehi errentaren jasotzaileari jasanarazi ezean egin den konturako sarrera.

Kapital higigarriaren errenten edo etekinen jatorri diren ondare elementu, ondasun edo eskubide beraren titular bat baino gehiago direnean, haietako bakoitzerako jaso behar da, haien partaidetzaren arabera, ordainsaria eta, hala badagokio, haiei egoztekoa den konturako sarrera.

Eremu hau bitan banatzen da:

123-133: Jasotako zenbatekoen edo mailegu emaileari egindako ordainketaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

134-135: Jasotako zenbatekoen edo mailegu emaileari egindako ordainketaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.

136-138

ZURIUNEAK

139-151

ZENBATEKO EZ-INTEGRAGARRIA

13 posizioko eremu numerikoa.

Hemen jarri behar da, zeinu eta koma hamartarrik gabe, integragarria ez den zenbatekoa, baldin eta jasotzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna bada. Zenbateko hori honela kalkulatzen da: etekinari kendu behar zaio 3/2014 Foru Arauaren 39.3 artikuluan aipatzen diren integrazio portzentajeak zenbateko horri aplikatu ondoren ateratzen den emaitza.

Errenten jasotzailea sozietateen gaineko zergaren zergaduna edo establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errenta zergaren zergaduna denean, eremu honetan ez da inolako zenbatekorik adieraziko.

Eremu hau bitan banatzen da:

139-149: Osoa: Numerikoa. Zati osoa: integragarria ez den zenbatekoaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

150-151: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra: integragarria ez den zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

152-164

ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

13 posizioko eremu numerikoa.

Zeinurik eta koma hamartarrik gabe jaso behar da ordainsariengatik egindako atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoa; izaera orokorrean, oinarria izango da exigigarria den edo ordaindua den kontraprestazio osoa. Jasotzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna bada, kontuan hartu behar dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 106. 113. eta 114. artikuluetan jasotako berezitasunak.

Gauza bidezko ordainsarien kasuan, «Jasotakoaren mota» eremuan (2. motako erregistroaren 122 posizioa) «2» jarri denean, zeinurik eta koma hamartarrik gabe jaso behar da egindako konturako sarreraren oinarria.

Dena den, baloreak mailegatzeko eragiketak egin direnean, hau da, «Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioan) «P» jarri bada, eremu honetan batura honen emaitza jarriko da: «Jasotako zenbatekoa/ordainsaria» eremuan (2. motako erregistroaren 123tik 135era bitarteko posizioak) adierazitako kopuruak gehi «Konpentsazioak» eremuan (2. motako erregistroaren 225-236 posizioak) adierazitako atxiki beharreko konpentsazioak.

Eremu hau bitan banatzen da:

152-162: Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz bete behar da.

163-164: Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz bete behar da.

165-168

ATXIKIPEN %

Kasu bakoitzean aplikatu den atxikipena edo konturako sarrera adierazi behar da. Portzentajea 100eko 19 izango da oro har, salbu eta «Ordainketa Gakoa» eremuan «B» letra jarri bada eta «Izaera» eremuan «04» zenbakia idatzi. Horrelako kasuetan, benetan aplikatutako atxikipen portzentajea adieraziko da (portzentajea ez bada zenbaki oso bat, bi hamartarrekin adieraziko da). Gainera, «Ordainketa Gakoa» eremuan «C» letra jarri eta «Izaera» eremuan «06» edo «8» zenbakia idatzi bada, idatzi beharreko portzentajea 100eko 24 izango da. Azkenik, «Ordainketa Gakoa» eremuan C letra idatzi bada eta «Izaera» eremuan «01» zenbakia jarri, atxikipena 100eko 15 izango da; aldiz, «Ordainketa Gakoa» eremuan C letra idatzi eta «Izaera» eremuan «15» zenbakia jarri bada, adierazi beharreko portzentajea 100eko 15 izango da.

Urtean zehar portzentaje bat baino gehiago aplikatu bada, aplikatu den azkena adieraziko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

165-166: Osoa: Numerikoa. Zati osoa: Portzentajearen zati osoa jarriko da (ez badu, zeroak idatziko dira).

167-168: Hamartarra: Numerikoa. Zati hamartarra: Portzentajearen zati hamartarra jarriko da (ez badu, zeroak idatziko dira).

169-181

ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

13 posizioko eremu numerikoa.

«Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarria» eremuan adierazitako zenbatekoari «Atxikipen %» eremuan jarritako atxikipen edo konturako sarreraren portzentajea aplikatuz ateratzen den emaitza jarriko da. Guztiarekin ere, urteko laburpenean aitortzen den ekitaldian atxikipen portzentaje bat edo konturako sarrera bat baino gehiago aplikatu badira une bakoitzean indarrean zegoen araudiaren arabera, eremu honetan adierazi behar da jasotzailearen atxikipenen edo konturako sarreraren oinarriari dagozkion atxikipen edo konturako sarreraren zenbateko osoa.

Eremu hau bitan banatzen da:

169-179: Osoa: Numerikoa: Zati osoa: atxikipenen eta konturako sarreraren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

180-181: Hamartarra: Numerikoa: Zati hamartarra: atxikipenen eta konturako sarreraren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

182-192

PENALIZAZIOAK

«Ordainketa gakoa» eremuan (2. motako erregistroko 92 posizioa) «B» edo «D» gakoa betetzen denean, jarri beharko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, sustapen komertzialak ez betetzetik datozen kapital higigarriaren etekin negatiboaren zenbatekoa, salbu mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozenak.

Eremu hau bitan banatzen da:

182-190: Osoa: penalizazioen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

235-236: Hamartarra: penalizazioen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

193-208

ZURIUNEAK

209-216

MAILEGUAREN HASIERA DATA

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, «Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioa) «P» jarri bada, eremu honetan maileguaren hasiera data jarriko da. Urtearen lau digituak idatziko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra), eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera beti.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

217-224

MAILEGUAREN AMAIERA DATA

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, «Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioan) «P» jarri bada, eremu honetan maileguaren amaiera data jarriko da. Urtearen lau digituak idatziko dira, hilabetearen bi digituak (01etik 12ra), eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera beti.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

225-236

KONPENTSAZIOAK

12 posizioko eremu numerikoa.

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, «Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioan) «P» jarri bada, eremu honetan konpentsazioen zenbatekoa jarriko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

225-234: Osoa: Numerikoa: Zati osoa: konpentsazioen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

235-236: Hamartarra: Numerikoa: Zati hamartarra:

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

237-248

BERMEAK

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, «Kode mota» eremuan (2. motako erregistroaren 96 posizioan) «P» jarri bada, eremu honetan bermeen zenbatekoa jarriko da. Eurotan adierazi behar dira zenbatekoak, zeinurik gabe.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

Eremu hau bitan banatzen da:

237-246: Osoa: Numerikoa: Zati osoa: bermeen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

247-248: Hamartarra: Numerikoa: Zati hamartarra: bermeen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

249-313

ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

Eremu hau beteko da, soil-soilik, baldin eta atxikipenari lotutako errentei edo kapital higigarriaren etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak eragiketa bolumenaren proportzioan ingresatu behar badira, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 9.Bat.Lehenenegoa.a) artikuluko bigarren paragrafoan eta 7.Bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusten den bezala, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikulua bigarren paragrafoan eta 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoan aurreikusten den bezala.

Horrelako kasuetan, entitate atxikitzaileak, «Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuan (2. motako erregistroko 169-181 posizioak) haien gainean guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera aplikatu diren adierazteaz gain, ondoren aipatzen diren azpieremuak bete beharko ditu, administrazio eskudun bakoitzean zein atxikipen edo konturako sarrera ingresatu diren bereizita identifikatzeko:

(249-261) ESTATUKO OGASUNA. 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Estatuko Ogasun Publikoan benetan ingresatu direnetatik, atxikipenari lotutako errentengatik edo kapital higigarriaren etekinengatik guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera dagokion ingresatzea eragiketa bolumenaren proportzioan, maiatzaren 2 3ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9.Bat.lehenengoa.a) artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoari eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikuluaen bigarren paragrafoan eta 10.1.f) artikuluaen bigarren paragrafoan jarraituz. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

249-259: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

260-261: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

(262-274): NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA. 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Nafarroako Foru Komunitatean benetan ingresatu direnetatik, atxikipenari lotutako errentengatik edo kapital higigarriaren etekinengatik guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera dagokion ingresatzea eragiketa bolumenaren proportzioan, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 12.1 artikuluaen bigarren paragrafoan eta 10.1.f) artikuluaen bigarren paragrafoan adierazitakoari jarraituz. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

262-272: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

273-274: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

(275-287): ARABAKO FORU ALDUNDIA. 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Arabako Foru Aldundian benetan ingresatu direnetatik, atxikipenari lotutako errentengatik edo kapital higigarriaren etekinengatik guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera dagokion ingresatzea eragiketa bolumenaren proportzioan, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9.Bat.lehenengoa.a) artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoari jarraituz. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

275-285: Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

286-287: Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

(288-300): GIPUZKOAKO FORUA ALDUNDIA. 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundian benetan ingresatu direnetatik atxikipenari lotutako errentengatik edo kapital higigarriaren etekinengatik guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera dagokion ingresatzea eragiketa bolumenaren proportzioan, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.Bat.c) artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoari jarraituz.

Aurreko paragrafoan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundian bakarrik ingresatu badira, azpieremu hau betetzeko, «Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuko zenbatekoa jarriko da hemen (2. motako erregistroko 169-181 posizioak).

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

288-298: Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

299-300: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

(301-313): BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Bizkaiko Foru Aldundian benetan ingresatu direnetatik, atxikipenari lotutako errentengatik edo kapital higigarriaren etekinengatik guztira zenbateko atxikipen edo konturako sarrera dagokion ingresatzea eragiketa bolumenaren proportzioan, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 9.Bat.lehenengoa.a) artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoari jarraituz. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

301-311: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

312-313: Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

314-500

ZURIUNEAK

- * Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- * Edukirik ez duten eremu numeriko guztiak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.